

2024-2025 IRALE Programa.

R300-R400-R600-R900 IKASTAROAK

C1 EDO BALIOKIDEREN BATETIK GORAKO IKASTARO TRINKOAK.

Irakaskuntzako langile funtzionario eta finkoak

Ikastaro-mota	AZALPENA
R300	Euskarazko komunikazio-konpetentzia sendotzeko ikastaroa, irakasle eta hezitzaileentzat
R400	Euskarazko ikasmaterialak sortzen trebatzeko ikastaroa
R600	Curriculumaren euskal dimentsioa irakasarloetan eta ikastetxean lantzeko ikastaroa
R900	Euskarazko ahozko komunikazioa irakasjardunean

(Izena R ikastaro baterako baino gehiagotarako emanez gero, lehentasun hau ezarriko da: R900 > R600 > R400 > R300)

Norentzat	R300	R400	R600	R900
Herri-ikastetxeetako irakasle funtzionarioak, finkoak	X	X	X	X
Herri ikastetxeetako irakasle bitartekoak	X	X	X	X
Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak	X	X	X	X
Herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoak	X			
Herri ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko aldi baterako irakasle eta hezitzaileak	X			

	R300	R400	R600	R900
Datak eta irakastegiak	<p>1. txanda (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2024/09/09- 2024/12/20</p> <p>2. txanda (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2025/01/07- 2025/04/11</p>	<p>1. txanda (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2024/09/09- 2024/12/20</p>	<p>1. txanda (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2024/09/09- 2024/12/20</p> <p>2. txanda (Donostian eta Bilbon)</p> <p>2025/01/07- 2025/04/11</p>	<p>2. txanda (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)</p> <p>2025/01/07- 2025/04/11</p>
Ordutegia	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu
Zenbat ordu	365 ordu	365 ordu	365 ordu	365 ordu

Ordu-kopuruak gutxi gorabeherakoak dira.

R ikastaroen egutegia eta ordutegia IRALEko irakastegi bakoitzak zehaztuko ditu; ikasketarien ordutegi-egutegiak, beraz, horietan izango dira, eta ez haien ikastetxeetakoak.

R ikastaroen ikasketariak, IRALEko irakastegian dauden bitartean, ez dute baimenik izango irakastegiko jardunez besteko eginkizunetan parte hartzeko (irakastegiko ordutegiaren barneko bestelako ikastaroetan, ikasketa-bidaietan...).

EGUTEGIA – IRAKASLE FUNTZIONARIO ETA FINKOAK

- . Eskabidea egiteko epea 2024/05/11tik 2024/05/31ra
- . R400, R600 eta R900 ikastaroetarako egitasmo-txostena aurkezteko azken eguna..... 2024/06/07
- . Onartuen behin-behineko zerrendak 2024/07/05
- . Erreklamazioak aurkezteko eta uko egiteko epea 2024/07/08tik 2024/07/11ra
- . Onartuen behin betiko zerrendak 2024/07/29

ESKABIDEAK NOLA BETE

Nola: *online* bidez. Horretarako, jo helbide honetara:

www.hezigunea.euskadi.eus > izapideak langileen sailarekin > Irale ikastaroak

Online ezin baduzu egin, jo dagokizun Hezkuntza Ordezkaritzara (Euskara Atala)

Kontuan hartu beharreko informazioa:

- . **R300 ikastaroa** eskatzeko, ezinbestekoa izango da galdetegi bat eranstea (Deialdiaren IV. eranskina), komunikazio-gaitasunaren zer eremu hobetu nahi dituzun adierazteko.
- . **R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion ikastetxeko zuzendariak bete beharreko adierazpena eranstea (deialdiaren V., VI. eta VII. eranskinak). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro hori egiteak ikastetxearen beharrei erantzuten diela, eta bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.
- . **R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ikastaroetan garatu beharreko proiektuaren egitasmo-txosten labur bat aurkeztu beharko da. Egitasmo-txosten labur horiek prestatu ahal izateko gidak eskuragarri daude Hezkuntza Sailaren webgunean (txostena aurkezteko azken eguna: ekainaren 7a).
- . **Egile-eskubideak.** Ikasketariak proiektua egitean beste egileren batzuen testuak, irudiak eta beste erabiltzeko asmorik badu, berak izango du dagozkion baimenak eskuratzeko ardura. Baimenak eskuratuta izan beharko ditu egitasmo-txostena aurkezten duenerako.

HELBIDEAK

Arabako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: 945 017 251

E-posta: huisarep3@euskadi.eus

Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoak: 944 031 101/ 944 031 109

E-postak: huisb130@euskadi.eus

huisb074@euskadi.eus

Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: 943 022 873

E-posta: huisg006@euskadi.eus

Hezkuntza Sailaren webgunea:

<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>